

## **AOB**

### **[MEKANIKA ETA MAILU]**

#### *4. Konsiderazioa:*

Mekanika eta mailu, arte bidera ekarri zituen gizonak:  
artearen morroi eder eta amets liluragarrienen espresio zoragarri izatera.

Tiriki tauki tauki  
mailuaren hotsa  
etxe guztian dabil  
mailuka bortitza  
burdina zahar guztiak  
aidez darabiltza.

Juanitok egin eta  
Anttonek birregin,  
artea, artearen  
hazi ta ernamin:  
Irudia sorburu,  
islada irazkin;  
behin geroztik bakoitza  
sorkari atsegin.

Tiriki Elizegi,  
Tauki Arriola,  
bikote artistari  
bejon dagiola.